

ZERGATIK FRANTSESA IKASI

Gaur egun, krisian dagoen globalizatutako mundu honetan, Frantsesa hitz egiteak ate asko irekitzen diete gure ikasleei, bere etorkizunera eta enplegura begira. Egun ia gazte guztiak ingelesa ikasten dute, eta atzerriko bigarren hizkuntza bat menperatzeak diferentzia ezartzen du. Plus bat da, curriculum-ean.

- **Donostia-Baiona Eurohiria eta Akitania-Euskadi Euroeskualdea**, murgilduta gauden errealitatea dira. Duela urte askotatik, gure Foru-Diputaziotik, bere homologoarekin batera LE Conseil Général d'Aquitaine, "muga"-ideia plano guztietan ezabatzeko elkarrekin lanean dabilta: hau da, geografia, politika, administrazio, garraio, komunikabide, hezkuntza, ikerketa, herritartasuna, kultura mailan. Hainbat ekintza eta jarduera burutzen ari dira norabide horretan.
- Hain zuzen ere, DBH3.ean egiten dugun elkartrukea horietako arlo bat da. Plan horren helburua mugaz bi aldeetako herritarrek elkartzea da. Hartarako, zein hobeto gazte nerabeekin hastea, haiek gonbidatzea, aurkeztea, eta elkarrekin gai interesgarri bati buruz lanaraztea. Hori da bereziki Frantses Mintegian egiten duguna. Foru Aldundiak elkartruke hau doan eskeintzen digu, beraz gure ikasleek ez dute ezer ordaindu behar.
- Frantsesa bigarren hizkuntza bezala ezagutzeak Euroeskualde honetako beharrezko cohesio hori bultzatuko luke.
- Estekak eransten ditugu.
 - <http://www.eurohiria.org/index.php?>
 - <http://www.aquitaine-euskadi.eu/transferrmuga.html>
- **Lan mundua:** Frantsesa ez da soilik diferentzia markatzen duen "plus" hori, baizik eta aukera egokia ere. Lan-munduan sarbide lagungarria izan daiteke. Euroeskualde honetako enpresa eta denda ugariak, haien artean Zara, Ikea, Mercadona, frantsesez hitz egiten duten pertsonak kontratazen dituzte.
- Bestalde, aipatu bezala, dagoeneko **Eurohiria eta Euroeskualdea** beren lehen urratsak ematen ari dira. Frantsesa inoiz baino lagungarria bihurtu daiteke, 50-100 kmko erradioan lan egiteko eta bizitzeko ere.
- **Prestakuntza:** "Pôle emploi" Frantziako enplegu zerbitzuak doako Frantses ikastaro trinkoak, mugaz beste aldean lanean ari direnei, eskaintzen dizkie.
- **Unibertsitatea:** Bestalde, B1 maila batekin, gure ikasleek Frantzian ikasketa unibertsitarioak egin ditzakete. Matrikularen prezioa merkeagoa da.
- **Europako erakundeak:** besteak beste, Erasmus, Sokrates, Europako programetan parte hartzeko aukera gehiago izango dute.
- **Urbiltasun geografikoa:** frantses hizkuntza hitz egiten da hemendik gertu, 20 Km-tara. 72 milioi biztanle baino gehiago Frantsesa hitz egiten dute. Frantzia, Alemaniarekin batera, Europar Batasuneko motorretako bat da. Frantses-hiztun munduan (Kanada, Karibe, Afrika, eta abar) eragin handia du, baita beste herrialde askotan ere.
- Frantses Departamentuak ikasturtean zehar burutzen dituen **elkartrukeak**.
 - <http://elkartrukeak2013-2014.blogspot.fr/>
 - <http://elkartrukeak2013-2014.blogspot.fr/p/poctefa.html>
 - <http://www.gipuzkoa.eus/eu/berrikuntza-landa-garapena-eta-turismoainheritRedirect=true>
- **Kultura:** Frantziako kulturaren humanismoa, filosofia, eta "savoir vivre" balioak aurki eta berreskura ditzakegu.
- **Frantses formakuntzaren eragina:** Frantziak bere ikasleak jendaurrean hitz egiten, argudiatzen, iritzi ezberdinak onartzen, irakasten die.
- **Bidaia:** aukera paregabea Frantzia ezagutzeko